

TOLO SALDE PEDIA

AUZOLANEAN
ERAIKITAKO
LIBURUA

TOLOsa 



Egileak: Wikipediako lankideak.
Wikipedia, Entziklopedia askea.

Argitaratzailea: Tolosako Udala

Edukia: Liburu honetako testu guztiak GNU Dokumentazio Librearen Lizenziaren azpian publikatzen dira eta egileak Wikipediako artikuluetako historialean azaltzen diren horiek dira. Irudi guztiak, berariaz horrela adierazi ezean, Creative Commons CC-BY-SA lizentziarekin daude eta egileak Wikipediako artikuluetan eta Wikimedia Commons-en azaltzen da.

Diseinua eta maketazioa: Chroma Estudioa

Lege gordailua: LG D 00367-2022

TOLO
SALDE
PEDIA

TOLOSA 



Sarrera	4
Tolosaldea	6
Historia	12
Ingurua	18
Kultura	30
Elkarteak	44
Pertsonak	52

Sarrera

Esku artean duzun liburu honetan 2021 urtean zehar Tolosaldepedia proiektuaren baitan sortutako Wikipedia eta Txikipediako artikulak topatuko dituzu.

Covid-19ak 2020an eragindako itxialdian Tolosako Udalak martxan jarritako hainbat proiekturen artean Tolosapedia egitasmoa sortu zen, Tolosari buruzko ezagutzan sakondu eta herritarren arteko elkar-harremanak sustatzeko helburuarekin. Garatze bidean proiektuak hainbat aldaketa izan zituen eta eskualde izaera hartu zuen azkenean.

Urte osoan zehar eskualdeko ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi izan dugu, edizio ikastaroak eta saioak antolatuz, besteak beste. Hilabete hauetako bideak emaitza politak utzi dizkigu:

Editoreak: 114

Editore berriak: 104

Wikipedia eta Txikipedian sortutako artikulak berriak: 103

Editatutako artikulak: 8

Dena den, lan asko dago egiteko oraindik ere. Lehen pausoak eman ditugu elkarrekin eta orain norabide horretan jarraitzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu guztioi. Wikipedia eta Txikipediako ateak parez pare zabalik daude, gure eskualdeari buruz idazten jarrai dezagun.

Lanean jarraitu nahi baduzu, hemen pista batzuk topatuko dituzu.



Eskerrik asko urte honetan zehar bidelagun izan zareten guztioi.



TOLO
SALDE
PEDIA

01



 Baserri bidea,
Albiztur

 Arri Studioa

Tolosaldea

Tolosaldea

01

Tolosaldepedia proiektuaren baitan egindako ekarpenekin hasi aurretik, hona hemen eskualdea pixka bat ezagutzeko oinarrizkoak diren artikulu gutxi batzuk.

Tolosaldea


Tolosaldea Gipuzkoako ekialdean dagoen eskualdea da. 332 km²-ko azalera du. Lurralde historikoan jende gutxien duen eskualdea da (48.196 biztanle). Baina, aldiz, udalerri gehien ditu, 28.


Eskualdea Toloserri izenez ere ezaguna zen, hegoaldean dagoen Goierri eta iparraldean dagoen Beterri eskualdeen antzera, baina izen hori gutxi erabiltzen da gaur egun.

Eskualdeko udalerri garrantzitsuenen Tolosa da, eta hortik datorkio izena. Historikoki beti hala izan da, eta gainera, iraganean Tolosaldeko udalerri guztiak Tolosaren zati izan ziren, pixkanaka banantzen joan ziren arte.



Tolosaldeko ikuspegia
Erniozabal menditik.





01
Abaltzisketa



02
Aduna



03
Albiztur



04
Alegia



05
Alkiza



06
Altzo



07
Amasa-Villabona



08
Amezqueta



09
Anoeta




10
Asteasu



11
Baliarrain



12
Belauntza



13
Berastegi



14
Berrobi



15
Bidania-Goiatz



16
Elduain



17
Gaztelu



18
Hernialde



19
Ibarra



20
Ikaztegieta



21
Irura



22
Larraul



23
Leaburu



24
Lizartza



25
Orendain




26
Oresa



27
Tolosa



28
Zizurkil



TOLO
SALDE
PEDIA

02



 Uzturreko gurutzearen
eraikuntza, 1941.

Historia

Herri baten oraina ezagutzeko ezinbestekoa da honen historiari ere begiratzea. Zerk egin gaitu gaur garena? Nolakoa izan da orain arteko ibilbidea? Historia idaztea, ordea, ez da kontu erraza. Gertatu zen hartatik, kontatzen den horretara, jauzi handia egon daiteke askotan. Izan ere, historia idaztea ez da beti edonoren esku egon, “historia irabazleek idazten dute” esaldi ezagunak esaten duen moduan.

Wikipedia bezalako tresnek jakintza sortzeko aukera ahalik eta esku gehienetara zabaltzea dute helburu, ahalik eta modurik zabal eta irekienean sortutako entziklopedia eraikitzeke asmoz.

Gure eskualdearen historia ezagutu, ikertu eta guk geuk kontatzea benetan ariketa interesgarria da. Asko dago egiteko oraindik, baina hona hemen Tolosaldepeña proiektuaren baitan norabide horretan aurten egindako ekarpen batzuk.

Tolosako Gudua


Tolosako gudua (1813ko ekainaren 26an) Thomas Grahamek zuzendutako zutabe britainiar-portugal-espainiarra Maximilien Sébastien Foyren menpeko indar franko-italiarren erretirada mozteko ahalegina izan zen. Ustekabean agertu zen Antoine Louis Popon de Maucuneko dibisioaren laguntzari esker, frantsesek Grahamen hasierako erasoak geldiarazi zituzten, eta ondoren, inguruta geratzeko arriskua zutenean, ihes egitea lortu zuten. Liskar hau Penintsulako Gerran barruan txertatzen da, Napoleondar Gerra zabalaren kapitulu bat.




1813ko udaberriaren amaieran, Wellingtono markesaren armada aliatuak Josef Bonaparte erregearen frantziar armada inperiala Espainiatik botatzeko diseinatutako ofentsiba indartsua abiarazi zuen. Ekainaren 21ean Wellingtonen armadak porrot erabakigarria eragin zion Josefen tropei Gasteizko guduan. Garaitutako frantziar armadak Pirinioerantz zuzendu zirenean, Wellington iparraldean Foyren zutabea eta hegoaldean Bertrand Clauselen indarrei bidea mozten saiatu zen. Ez Foyk ez Clauselek ez zuten Gasteizen borrokatu. Grahamek Foyren zutabea harrapatu zuen, baina borroka batzuk egin ondoren, frantziarrek alde egitea lortu zuten. Clauselek ere moztuta geratzea saihestea lortu zuen, eta Donostiako eta Iruñeko setioak salbu, Espainiako iparraldea laster Frantziako okupaziotik libre geratu zen. Hurrengo gudazelaia 1813ko uztailaren 25ean hasi zen Pirinioetako kanpaina izan zen.



Banco de Tolosa

Banco de Tolosa desagertutako banketxe bat da. 1911n sortu zen Tolosan eta 1969an Banku Zentralak bereganatu zuen. Hiriburuetakoak kenduta, Euskal Herrian sortu zen lehen bankua izan zen. Proiektua familia batzuk sustatu zuten, Mendia, Limousin, Aranburu, Urkiola eta Elozegi, eta beren enpresak zuzentzeko finantzaketa behar zutelako. Batez ere paper industriari lotutakoak (garai hartan Tolosak paper fabrika kontzentrazio handia zuen) eta txapelgintzari lotutako enpresak ziren. Industrial horiez gain, Ladislao Zabala abokatuak (Gipuzkoako Foru Aldundiko lehendakari izan zena) eta Francisco Zubeldiak parte hartu zuten ere.





1978ko Tolosako tren istripua

Tolosako tren istripua 1978ko martxoaren 28an gertatu zen Tolosako geralekuaren eta geltokiaren artean. 55 tona azido zianhidriko zeraman tren errailetatik atera zen eta hondamendi izugarri bat gertatzeko zorian egon zen.

Istripua 1978ko martxoaren 28an 01:30ean gertatu zen, asteartez, Lyondik Burgoserako bidea egiten zuen tren errailetatik atera zenean. 80 kilometro orduko abiaduran zihoan. Trenak trenbide osoa hartu zuen eta lau errailak moztuta geratu ziren. Trenak garraiatzen zuen materialaren arriskua ikusita, Iñaki Linazasoro orduko alkateak behala inguruko etxebizitzetako bizilagunak ebaquatzeko agindua eman zuen. Tolosarren %5ak herria utzi behar izan zuen. Halere, jende mordo gerturatu zen istripua ikustera horrek zekarkeen arriskuaz jabetu gabe.



Espainiako Gerra Zibila Alkizan

Espainiako Gerra Zibilean Alkiza ez zen ez fronte ezta borroka-leku ere izan. Alabaina ondorioak utzi zituen herrian. 1936ko uztailaren 17an eta 18an Espainiako armadaren zati inportante batek estatu-kolpea jo zuen, baina ez zuen lortu estatu osoan arrakasta izatea. Horrek 3 urteko gerra zibila piztu zuen. Arrakasta lortu zuten tokietako bat Nafarroa izan zen. Hortik militar eta erreketez osatutako taldeak Gipuzkoan sartu ziren hurrengo egunetan.

Benedikto Barandalla karlista etxarriarantzarrak osatutako erreketetako taldeko 10 gizonek Alkiza hartu zuten abuztuaren 12an tiro bat ere jo gabe. Hala ere gerran zehar 9 alkizar hil ziren, Errepublikaren aldeko 5 eta Matxinatuen aldeko 4.






TOLO
SALDE
PEDIA

03




 Urkizu auzoa,
Tolosa

 Arri Studioa

Ingurua

Eskualde menditsua da Tolosaldea eta, 1078 metroko garaierarekin, *Hernio* mendia da denen artean garaiena. 2021 urtearen hasieran erabat elurtuta ikusi ahal izan genuen honen tontorra, eskualdeko zein Euskal Herriko beste txoko asko bezala.

Hernio (1078 metro)
elurtua.



Hernioren magalean kokatuta dago Alkiza, eta inguru hauek hobeto ezagutzeko hainbat artikulu landu dira aurten, Tolosaldepediaren baitan.

Enaizpuru edo Endaizburu

Hernioko mazizoari iparrekialdetik eusten dioten mendietako bat da. Punturik altuenean 733 m-ko altitudea du. Gailurrean bi muino bereizten dira, bata bestetik 100 bat metrora, apenas gora-beherarik gabeko lepo batez lotuak. Bata, hegomendebaldekoa, larre eremu zabal batez osatuta dago eta irekia da, ikusmira zabalekoa; bestea, iparrekialdekoa, kareharrizko eremu zakar batek osatzen du eta basoak eta sasiak estaltzen dute.



Alluts, Aillutz edo Allux

Hernioko mazizoaren iparrekialdean kokaturiko haitza eta parajea da. Kareharrizko haitzaren altitudea 687 m-koa da. Haitzaren iparraldeko aldeak 50 m inguruko amildegi bertikala osatzen du; hegoaldekoak, aldiz, apenas du altitude-diferentziarik gertutik pasatzen den bidearekiko. Pagadi eder-rra dago parte horretan.



Irumugarrietako lepoa

Hernioko mazizoaren iparrekialdeko lepoetako bat da 772 m-ko altitudetan dagoena. Bertan Alkiza, Errezil eta Larraulgo udalerrien muga adierazten duen mugarrria dago eta hortik datorkio izena. Mugarrrian bat egiten dute Alkizatik eta Larrauldik Zelatunera doazen bideek. Aziendak eta abereak larratzen dira lepoko larreetan.



Herniotxiki edo Irumugarrietako harkaitza

Hernioko mazizoari iparrekialdetik eusten dioten mendietako bat da. Bere altitudea 809 m-koa da eta Irumugarrietako lepoaren gainean nabarmentzen da. Kareharrizko tontorrean harri pilo bat baino ez dago.



Herniotik pixka bat aldentuta ere badira Alkizan ezagutzeko moduko txokoak, besteak beste:

Mendiola

Alkizako udalerrian kokaturiko mendia da, herriaren iparrekialdean dagoena. Mendiolak 431 m-ko altitudea du. Sakamidra bailaran zehar doan bidearen eskuinean kokaturik dagoen tontor konikoa da. Bide beraren ezkerrean eta Mendiolaren parean, Txurro izeneko gaina dago, 430 m-koa, non erpin geodesikoa kokatuta dagoen.



Aranguren

Bi erreka nagusietako bat da, izen bereko baserriaren ondoan sortzen dena. Aldapa bailara zeharkatzen du eta Oria ibaiaren adar den Asteasu errekan isurtzen ditu urak. Zazpi adar ditu: Enaizpuru, Urdanasi, Murkaitz, Iturritxiki, Txapiola, Iturriberrri, Untzulo eta Troska. Lehen lauak ezkerretik datoz, hots, eguteratik eta ur-emari nahikoa irregularra dute. Gainerako lauak, ospeletik datozenak, emari handiagokoak dira.



Alkiza Arana Egutera ospela.



Tolosako planoak.



Andre Maria Eliza Alde Zaharrea dago, udaletxe ondoan, Andre Maria plazan. 1.630 metro koadroko azalera du. Bere eraikuntza XVI. mendean hasi (1501) eta XVIII. mendean bukatu zen (1789). Gipuzkoako eliza handienetan bigarrena da, Donostiako Artzain Onaren katedralaren atzetik.



Leidor Antzokia astero filmak pantailaratzeaz gain, antzerkilanak nahiz musika emanaldiak ere eskaini ohi dira. Urtero bertan Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa ere ospatu ohi da.



Gaztelako atea Alde Zaharrea dago, Triangulo plazan. XIII. mendean sortu zen, 1256an. Eskolapiotetako eskola desagertu eta gero bere ingurua hutsik geratu zen. Gaztelak Nafarroko Erresumarekin egiten zuen muga. Tolosan 1503an sute handi batek dena suntsitu zuen eta monumentu hau dagoen bezala geratu zen harrizkoa zelako.



Gorrotxategi museoa Usabal auzoan dago. Era askotako txokolata egiten zen, besteak beste kafea, txokolata, karamelua, izozkia, irabiatua eta alkohola egiteko tekniken aurrerapena ikusi ahal izaten zen. Oso famatua zen, jende asko joaten zen txokolata egiteko teknika berezi hori ikustera.



Beotibar pilotalekua udal pilotalekua da, 1220 ikusleentzako tokia du. Goi mailako pilotariak jolasten dute. Pilota eskolako haurrek bertan entrenatzen dute. Pilotarientzako frontoia oso ona da, harrizkoa delako. Bertan, aspalditik jolasten da pilotan, 1890ean eraiki zutelako.



Zerkausia Alde Zaharrea dago, Oria ibaiaren eta Triangulo plazaren ondoan. Hiru aldetatik irekia dagoen eraikin luzea da. Larunbatero bertan Tolosako azoka ospatzen da. 1899-1900 artean Juan Alejandro Mujika arkitektoak proiektatu zuen.



Errota Alde Zaharrea Oria ibaiaren ertzean dagoen eraikin bat da. XIV. mendean eraiki zen eta Tolosako Udalarena izan zen XIX. mendearen amaiera arte. Boinas Elosegi enpresak mende batez errota ustiatu zuen energia lortzeko. 70eko hamarkadan errota erabiltzeari utzi zioten, eta berriro ere udalarena izatera bueltatu zen. Birgaituta, gaur egun haur-liburutegia da.



Tolosako Zezen plaza zabalgunean dago, Oria ibaiaren ondoan. Urtean zehar bertan zezenketak, sokamuturra eta herri kirol txapelketak ospatzen dira. Inauterietan arratsaldero zezenak izaten dira eta jendez lepo bete ohi da. Denera, bost harmailetan 5.500 eserleku ditu. 1903an inauguratu zuten zezenketa batekin.



Triangulo Plaza Alde Zaharra, San Frantzisko etorbidea eta Rondilla kaleak elkartzen dituen plaza da. Triangularra delako deitzen zaio "Triangulo plaza". Plaza honetan Aldundiaren jauregia, Gaztelako atea eta Jorge Oteitza oriotar eskulturgilearen Atauts eskultura daude.



Berazubi estadioa Berazubi eta lurre auzoen artean dago. 1923an eraiki zen, Espainiar Estatuan egindako lehen atletismo estadioa izan zen. Hasieran bost kaletako pista zuen eta geroago sei kaletakoa egin zuten. Bertako futbol zelaian betidunik Tolosa Futbol Klubak jokatu izan du. 1956ean ikusleentzako tribuna eraiki zen eta 2012an berritu egin zen.



Andia dorrea Alde Zaharrea dago, Kale Nagusiko 17. zenbakian. Garai batean dorretxea izan zen. Etxe honi buruzko dokumentazioa XV. mendekoa da. Gaur egungo eraikinean Erdi Aroko jatorrizko dorretxearen armarrria eta bi gargola geratzen dira. Udalaren batzar gela izan zen urte luzez. XV. mendean Gipuzkoako historian garrantzi handia izan zuen Domejon Gonzalez de Andia han bizi izan zen, eta hortik datorkio izena etxeari. 1503an etxeak su hartu zuen eta bere semeak berreraiki zuen.



Aranburu jauregia XVII. mendeko eraikuntza bat da, eta Santa Maria eliza, Errota eta Oria ibaiaren artean dago. Aranburu jauregiak hiru solairu ditu eta beheko solairuan Tolosako udal liburutegia, udal artxibategia eta bi erakusketa areto daude. Lehen solairuko hormak harri landuz eginda ditu. Jauregiaren izkinak kutxinduraz apainduta daude. Lehen solairuko leihoak hesiz inguratuta daude berriz goiko solairuan balkoiak ditu. Elementu deigarrienak lehen solairuan dagoen sarbide handia eta haren gaineko balkoia dira. Balkoiaren gainean Migel Aranbururen armarrria ageri da.



Lapaza etxea landa-estiloko eraikin bat da. XVIII. mendean eraiki zen eta Lapaza familiari egozten zaio etxea eraikitzea. Urteetan zehar Ambrosienea edo Ambrosienea ere deitu izan zaio eraikin honi. Alde Zaharrea dago kokatuta, Korreo kalearen 17. zenbakian, eta Letxuga kalearekin izkin egiten du; fatxadaren bi alde dauzka ikusgarri. Lau solairuko eraikuntza da, beheko solairuaz gain, hiru isurialdeko teilatupean beste hiru altuerak osatuta. Lehenengo biak harlanduzko hormaz eginak daude eta beste biak adreiluz. Zurezko egitura du, teilatu hegala, landutako egurrez egina dago.



Tolosatik kanpo ere badira eraikin esanguratsuak, noski, hona hemen aurten egindako ekarpenak, hauek ere **Txikipedian**:

TxikipediA

Ibarra — Azkue baserria

XVI-XVII. mendeen artean sortu zen. 2001eko urriaren 11n, Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen. Gaur egun osorik mantentzen da. Baserriaren alde bakoitzak 20ren bat metro neurtzen ditu, eta horietako batean armarri barroko bat du. Behe solairua, lehena eta ganbara ditu. Harlangaitzez eginda dago eta lau fatxadak karez zurututa ditu.



TxikipediA

Anoeta — Etxeberri baserria

XVII. mendeko egitura du eta XVIII. mendean berritu egin zuten. Malda txiki batean Oria ibaia-
ren ibarrean dago. Oinplano laukizuzena du eta familia bakarreko baserria da. Fatxada nagusia hego-ekialdera begira dago. Eraikinak bi solairu, ganbara eta sotoa ditu. Beste elementu garrantzitsuak ere baditu, hala nola, arkuak, atxikitako eranskina eta dolarea... 2007ko azaroaren 20an, Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen.



TxikipediA

Berastegi — Berastegi dorrea

Hilerriaren eta elizaren alboan dagoen dorretxe bat da, herriaren erdian, Elizalde auzoan. Erdi Aroko jauntxoek eraikinetako bat zen. Gotiko estiloa du eta ondare kulturala bezala sailkatua dago. Oinarria lauangeluarra du. Harriz egina dago, seguruena barruan dagoen egurra eusteko. Geroago dorrea berriro eraiki zuten, eranskin bat gehituz egonkortu egin zuten. Elizara begira dagoen etxe-
-aurrean bi ezkutu jarri zituzten.



TxikipediA

Berastegi — San Sebastian basiliza

Leitzalde auzoan dago, muino baten gainean, 533 metroko garaieran. XIV. mendean existitzen zela esaten duen datuak badaude. Gaur egun hutsik dago, eta ustez Erdi Arokoak diren leihoak kontserbatzen ditu. Harlanduz eginiko eraikina da eta arkuharriak eta horma laburrak ditu.





04



Tolosako
Inauteriak.

Iñigo Royo

TOLO
SALDE
PEDIA

Kultura

Musikak garrantzia eta presentzia nabarmena du gure eskualdean. Dozenaka musika talderen sorleku da Tolosaldea, eta mundu mailan ezaguna den lehiaketa bat ere ospatzen da urtero Tolosan. Gaztetxoek ere honen berri izan dezaten, kultur aberastasun eder hau erakusten duten gero eta artikulua gehiago ditugu Txikipedian bertan ere. Ondorengo hauek Tolosaldepedia proiektuaren baitan aurten egindako ekarpenak dira.



TxikipediA

Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Tolosako abesbatza lehiaketa Tolosan urtero ospatzen den ekintza bat da. 1969tik ospatzen da. Munduko abesbatza onenak biltzen dira beraien arteko estiloa, interpretazioa, abesbatza literatura eta herri bakoitzeko talde ezberdinak ezagutu eta elkartzeko asmoz. Europan hauetako 6 jaialdi daude eta bakoitzean irabazten dutenak Europako Abesbatza Lehiaketara joaten dira.

Lobo Eléctrico

1999an Tolosan sortu zen rock talde bat da. 2000ko abenduaren 23an lehen kontzertua eman zuten eta 2013an azkenekoa. Hauek dira taldekideak: Shanti Iribar (ahotsa), Jorge Sanz (bajua), Iker López (gitarra) eta Guanche (bateria). Aurreko taldekideak: Iñaki Alberdi (bateria) eta Lander Zabalza (bateria). Bi diska, bi single, EPak eta bildumetako parte hartze bat egin zuten.

**Humus**

1997an Tolosan sortutako taldea. Beraien musika mota "hardcore" eta "roka" da. Humus taldearen lehen taldekideak Edu, David eta Luisma ziren, baina orain: Natalia Garmendia, Fernando Manzidor, "mantxi" eta Aritz dira. Bost diska kaleratu dituzte: Pulper, Leihotik begira zain, Lekua, Saurius eta Adorez.

**Ruido de Rabia**

1985ean Tolosan sortu zen taldea eta 1994ean desagertu zen. Taldea Shanti Iribar, Lamberto Perurena, J.M. Gandarias eta Santi Manterolak osatzen zuten. 1987an lehen lana grabatu zuten (Eros versus Thanatos). 1988an Gandariasek taldea utzi zuen eta urte bat geldirik egon ziren, Sebas Ginger taldera batu arte. 1990ean, Sebasek eta Lambertok taldea utzi zuten eta beraien ordean Antonio Mateos eta Santi Manterola sartu ziren. 1991ean Pequeñas reliquias de un infanticida maketa kaleratu zuten. Azken kontzertua Alegiako Gaztetxean eskaini zuten 1994an.

**Glaukoma**

2010 urtean Tolosan sortutako taldea, rap-reggae estiloko musika jotzen dute. Bost gaztez osaturik dago. Hauek dira taldekideak: Juantxo Arakama (ahotsa), Iker Pando (gitarra), Jokin Albisua (gitarra), Asier Arandia (baxua) eta Pablo Rubio (bateria). Lau diska kaleratu dituzte.

Eztanda

2015ean Tolosan sortu zen trash metal musika taldea da. Lau musikari dira: Ion Garate, Mikel Romero, Unai Sukia eta Aitor Aizkolain. 2019. urtean taldeak bere lehen diskoa argitaratu zuen: Errua norena da.

**Don Inorrez**

2018an Tolosan sortu zen musika talde bat da, rock musika jotzen dute. Hauek dira taldekideak: Imanol Ubeda kantaria, Karlos Aranzegi bateri-jotzailea, Fernando Neira baxu-jotzailea eta Ruben Caballero gitarra jolea. Hiru diska kaleratu dituzte.

Desordutan

2005ean Tolosan sortutako proiektu akustikoa, pop-rock musika mota jotzen dute. Taldekideak Txus, Iñigo eta Gorka dira eta gitarra akustikoa, baxua eta bateria jotzen dituzte. Lehen kontzertua 2006ko apirilean eman zuten Tolosako Bonberean eta urte horretako abenduan bertan lehen maketa grabatu zuten. Bi diska argitaratu dituzte.

**Deabruak Teilatuetan**

1991ean Tolosan sortu zen rock taldea. Taldekideak: Joni Ubeda, Imanol Ubeda, Aritz Mendieta eta Iñigo Arruti. 1998an taldearen ibilbidea eten zuten, bateria jotzaileak kanpora jo zuelako, baina 2007an beste lan batekin itzuli ziren. Lau diska kaleratu dituzte eta hainbat kolaborazio egin dituzte.

Manent

2008an Tolosan sortutako taldea, musika pop elektronikoa egiten dute. Hauek dira taldekideak: Denis Ruiz (ahotsa eta gitarra akustikoa), Iñigo Agirre (gitarra elektronikoa eta akustikoa), Juanjo Falkon (baxua), Fermin Etxeberria (bateria), Tadeo Urkola (elektronika), Iñigo Asensio (teklatuak). Bi diska kaleratu dituzte.

**Et Incarnatus**

1996ean Gipuzkoan sortutako orkestra bat da, Felipe Gorriti musikagilearen omenez. Migel Zeberio musikaria taldearen zuzendaria da. Musika estilo ugari jorratu dituzte hasieratik eta elkarlan asko egin dituzte. Zazpi diska kaleratu dituzte.

**Tenpora**


2013an Tolosan sortutako pop taldea. Hauek dira taldekideak: Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxua), Beñat Barandiaran (gitarra), Juantxo Zeberio Etxetxipia (teklatuak) eta Elene Arandia (ahotsa). Hiru disko kaleratu dituzte

**Xaximiku**

1986an Tolosan sortutako taldea, festa giroko musika egiten zuten. Hauek ziren taldekideak: Jon Ander Larrañaga, Olatz Korta, Karlos Aranzegi, Txomin Agirregomezkorta, Isidro Larrañaga, Arantxa Montoya eta Martin Aranzegi. Lehen kontzertua Tolosan eman zuten, AEK-k antolatutako jaialdian, Erramun Martikorenaekin. Geroago, inguruko herrietako jaietan hasi ziren jotzen. 1988an, Euskal Herriko Kantu Txapelketan parte hartu eta sari bat lortu zuten.

**Adi!**

2017 an Tolosan sortutako musika talde bat da, Jon Urbizu saxofoi-jolearen proiektua hain zuzen ere. Musikenen ikasketak egin ondoren jazz eta rocka uztartu nahi izan ditu Urizuk, proiektu berezi honetan. Hauek dira taldekideak: Jon Urbizu Trubin (saxofoi baritonoa, saxofoi sopranoa), Antton Telleria (bateria) eta Joanes Ederra (baxua).

**Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra**

Tolosan kokatutako orkestra bat da eta 25 partaide inguru ditu. Isidro Larrañaga Belokik sortu zuen 1980 urtean. Zuzendaria Isidro Larrañaga Moreno da eta akordeoiez gain orkestra kaxa, tinbal, baxu eta teklatur osatzen da. Orkestrak 1985eko apirilean Frantziatik bira egin zuen arrakasta handia lortuz. 1987an, bigarren orkestra bat sortu zen 9 eta 15 urte bitarteko musika ikasle gazteek osatuta.

Musikarekin jarraituko dugu, baina Txikipediatik **Wikipediara** egingo dugu salto oraingoan. Izan ere, Tolosan esanguratsuak diren bi Banda lantzeko aukera ere izan dugu Tolosaldepediaren baitan.

Tolosako Musika Banda
Santa Maria parrokiaren
aurrian 80. hamarkadan
San Joan egunean.



Tolosako Musika Banda

Tolosako Musika Banda herriko erakunderik zaharretakoa da, 1828tik aurrera behintzat, datu dokumentatuak badirelako. Honek Euskal Herriko bandarik zaharrenetarikoa ere egiten du. Aipamen zehatz moduan, 1828ko ekainaren 2koa ikus daiteke; Jose Mateo de Ezpeletaren zuzendaritzapean, Fernando VII.a erregeari ongi-etorria egin zitzaionean parte hartu zuen Tolosako musika bandak. 18 partaide zituen orduan eta Musica Marcial de Aficionados deitzen zitzaion. Errege-erregin eta agintari askoren aurrean jo izan du bere historia luzean zehar eta hainbat etenaldi izan ditu gerren ondorioz.

Gaur egun urtean 25 emanaldi ditu hitzartuta Udalarekin: kontzertuak, dianak, prozesioak, kalejirak... Baina horretaz gain asko dira egiten dituzten emanaldi eta elkarlanak ere. 2012tik, Enrike Arostegi Eguzkitza da zuzendaria eta Idoia Balza Garmendia zuzendariordea. Zuzendariordearen egizkizunen artean urteko kontzertu bat zuzentzea dago eta, horregatik, Banda zuzendu duen lehen emakumea izan da Garmendia.



Tolosako Udal Txistulari Banda

Tolosako Udal Txistulari Banda zortzi musikarik osatzen dute, horien artean sei txistularik eta beste bi silbotek. Zereginen artean igandeetako goiz guztietan diana eta herriko jaietan jotzea daude. Diana Alde Zaharreko kaleetan barrena egiten da, eta tarteka auzoetara hedatzen da ere. Aurrekariak 1658ra arte eramaten bagaituzte ere, Txistularien Udal Banda izen ofiziala estreinakoz 1916an agertzen da, horrela iragartzen baita urte horretako Iruñeko festetan.



Kultura, ordea, ez da musika soilik; dantzak eta ospakizunek, adibidez, garrantzia handia dute gure eskualdearen ondare kulturalaz hitz egiterakoan. Hainbat dantza talde ditugu Tolosaldean, horien artean zaharrena Udaberri Dantza Taldea da eta honek ere badu jada bere txokoa **Wikipedian**.

Udaberri Dantza Taldea

Udaberri dantza taldea (sorreran Udaberria dantzari taldea) 1957an sortu zen Tolosan. Xalbador Garmendia eta Felix Galdona apaiz sakramentinoak izan ziren sortzaileak, Sakramentinoen eliza inguruko auzoetako haurrekin, mutilak bakarrik hasieran. Lehenengo neskak 1963an sartu ziren, Korazonistetan dantzan ari ziren neskak taldera elkartzean. Bere historian zehar taldeak Euskal Herriko zazpi herrialdeetako dantzak ikasi eta eskaini ditu jendaurrean, batez ere Gipuzkoa eta Nafarroakoak, beste herrialde guztietako hainbat dantza ere eginez.



Eta ospakizunak aipatuta, Tolosako inauteriei buruz hitz egin behar. Jai erraldoi honek bazuen lehendik ere artikulua **Wikipedian**, baina entziklopedia hau pixkanaka auzolanean handituz doanez, guk ere egin diogu ekarpentxo. Inauteriak esanguratsuak dira, noski, baina hain handiak ez diren bestelako jaiak ere badute garrantzia komunitatean; horren adibide da San Blas jaia.



Tolosako inauteriak

Tolosako inauteriak Tolosan ospatzen diren inauteri urbanoak dira, Euskal Herriko inauteri ospetsuenetakoa. Euskal Herri osoko jendea erakartzen dute. Inauterietako ohiko moztoreez gainera, euskal jaietako osagai guztiak biltzen dituzte, hala nola lagun taldeak, danborrada, txarangak, txosnak, desfileak, soka-muturra, gastronomia, txupinazoa. Francoren diktaduraren garaian, Hego Euskal Herrian baimendutako hiri inauteri bakarrak izan ziren, Udaberriko festak izenenarekin izan bazen ere.



San Blas jaia


San Blas jaia Tolosako izen bereko auzoan otsailaren 3an ospatzen den jai tradizional eta erlijiosoa da. Emendek elkarteak antolatzen du erromeria egun hau eta, meza nagusiarekin batera, hainbat kultur jarduera antolatzen dira. San Blas eguna osasun onaren alde eta eztarriko minen aurka jakiak bedeinatzeko eguna da. San Blas opilak, azukrea, dilistak, babarrunak, garbantzuak nahiz gozokiak eramaten dituzte herritarrek, minak uxatzeko. Jakiak bedeinatzera joan dira batzuk, eta San Blas opilez nahiz barrako txistorraz gozatzera, beste asko, hamaiketako eginez.

Herri baten ondare kulturala sustatu eta bizirik mantentzea ez da lan makala. Herritarren eta instituzioen konpromisoa eta parte hartzea eskatzen du eta horretan ere baditugu hainbat adibide interesgarri Tolosaldean.



Itxurain herri-proiektua

Itxurain herri-proiektua 2008an Alkizan abiatu zen herriko ondare sozio-etnografiko eta kulturala bildu eta etorkizunera proiektatzeko helburuarekin, ondare hori Alkizaren geroaren oinarritako bat izan zedin. Koldobika Jauregiren gidaritza ideologikoaren baitan herritar-talde batek eman zion hasiera proiektuari, eta herri-nortasuna gordetze-ko eta indartzeko proiektu moduan definitu zuten.



Sormenaren kabia

Sormenaren Kabia Fagus-Alkiza proiektuaren baitan Alkizako Udalak sustatutako kultur ekimena da, sormena eta kultura hiri eta herri handietatik deszentralizatzeko asmoarekin jarri zen martxan. Landa eremuan beren jarduera artistikoa garatu nahi duten artistei espazio bat eskaintzen die ekimenak. Edozein espezialitate eta jatorriko artistei irekita dago.



05



 Shane Rounce.

Elkarteak

Bizitasun handiko eskualdea dugu Tolosaldea eta halaxe ikusi ahal izan dugu Kultura atalean. Bizitasun hori, mugimendu guzti hori ez da ezerezetik sortzen, ordea; hamaika esparrutan lan egiten duten elkarte ugari ditugu gure artean: haur eta gazteei euskarazko hezkuntza eskaintze dieten ikastoletatik hasi, bertsolaritza elkarteetatik pasa, eta kirola sustatzen aritzen direnetaraino, besteak beste.



Laskorain Ikastola

Laskorain Ikastola Tolosan dagoen ikastola da. Haur hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH eta batxilergoa etapak eskaintzen ditu. Gaur egun 0-18 urte arteko ikasleak hartzen ditu. Laskorain Ikastolaren sorrera 1967an kokatzen da, baina, historia aztertzen, kontutan izan behar da aurretik ere bazegoela izen bereko beste ikastola bat Tolosan, 1922an sortua. Ireki zen lehenengoetakoa izan zen eta Gerra Zibilaren aurreko ikastola honek gela bakarra zuen eta adin guztietako haurrak biltzen ziren bertan.



Uzturpe Ikastola

Uzturpe Ikastola Ibarra herrian dagoen ikastola da. Gaur egun, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH etapak eskeintzen ditu. Ikastolen Elkarteko kide da. Hirurogeigarren hamarkadaren bukaera aldera euskararen aldeko mugimendu indartsua zegoen Euskal Herrian. Giro bero honetan sortu ziren Euskal Herriko ikastola ugari eta Ibarakoak ere 1970ean eman zituen bere lehen urratsak.



Anoetako Herri Ikastola

Anoetako Herri Ikastola herri ekimenetik sortutako kooperatiba da. Anoeta herrian kokatuta dago eta 2-16 urte arteko ikasleak hartzen ditu. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapak eskaintzen ditu. Ikastolen Elkarteko kide da. 60ko hamarkadan, Anoeta herriko umeei euskaraz ikastea eta hezteia helburutzat hartuz, herriko guraso, gazte euskalzale eta beste zenbaiten laguntzaz Ikastola sortzea erabaki zuten eta, honela, 1969an jaio zen Anoetako Herri Ikastola.

Euskara oinarri eta ardatz garrantzitsua du gure eskualdeak eta honen aldeko lanean ari diren elkarteak ere ugari dira: euskara irakasteko, albisteak euskaraz kontatzeko edo bertsolaritza kohesionatzeko, adibidez.



Aitzol Udal euskategia

Aitzol Udal Euskalategia Tolosako udal euskalategia da eta Aitzol euskaltzalearen omenez jarri zioten izena. 1983an sortutako HABE euskalategi sarean sartuta dago. Tolosako Euskalategiak 1982an hasi zuen ibilbidea eta 1986an hartu zuen Aitzol izena, urte hartan bete baitziren 90 urte Aitzol fusilatu zutela. Helduak alfabetatu eta euskalduntzeaz gainera, hainbat kanpaina eta ekitaldi egiten ditu urtero.

Alkizako Oilategitik Kultur Elkarteak

2002an Alkizan sortutako elkarteak da Alkizako Oilategitik Kultur Elkarteak. Alkizako errealitate soziokulturaletik abiatuta, euskara eta euskal kultura babestea, bultzatzea, hedatzea eta sustatzea dira elkartearen helburuak. Dena dela elkarteak sortzeko helburu nagusia Oilategitik herri-aldizkariari babes legala ematea izan zen.



Tolosaldeko Ataria

Tolosaldeko Ataria euskara hutsez diharduen tokiko hedabide multimedia da. Eskualdeko 28 herrietako herritarren informazio premia asebetetzea du helburu nagusi. Proiektu honek 2013ko urrian eman zituen lehen pausoak. Aldi horretan Tolosaldean zeuden hiru komunikabideren bateratzeak sortu zen: Galtzaundi aldizkaria, Tolosaldeko Hitza egunkaria eta Txolarre irratia.



Galtzaundi Euskara Taldea

Galtzaundi Euskara Taldea Tolosaldeko euskara elkarteak da. 1990eko abenduaren 13an sortu zuten eskualdeko zenbait euskaltzalek, eskualdean euskara normalizatzeko helburuarekin. Euskara elkartearen loraldian sortu zen Galtzaundi, baina bere aurretik ere Tolosaldeko Berreuskalduntze-ko Elkarteak izeneko taldeak ere aritu ziren bailaran asmo berdinekin lanean.

Harituz

Harituz, Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea, Tolosaldeko bertsolaritzaren ekosistema indartu eta egonkortzeko helburuz 2013an sortu zen elkarteak da. Esan bezala, Harituzen helburua eskualdeko bertsolari, bertso eragile (irakasle, gai-jartzaile, antolatzaile...) eta bertsozaleak kohesionatu eta urte luzez iraungo duen egitura sendo eta iraunkor bat eragitea da.



Burua ondo izateko ezinbestekoa da gorputza ere osasuntsu izatea eta horretan kirolak garrantzia handia du, ondo dakigun moduan. Horregatik, oso garrantzitsuak dira kirol jarduerak sustatzen dituzten elkarteak ere.



Alpino Uzturre mendi elkarte

Alpino Uzturre mendi elkarte Tolosan sortu zen 1958ko abenduaren 13an egin zen batzarrean. Aurretik Tolosa CFko bazkide izan ziren 100 bat mendizale izan ziren elkarte berriaren bultzatzaile. Guztira 300 sinadura bildu zituzten elkarte berria sortzeko. Alpino Uzturreren aktibitate nagusia mendia da (mendi irteerak asteburuetan, haurrentzako txangoak...), baina beste hainbat kirol eta jardueretan ere aritzen dira: iraupeneko eskia, eskalada, espeleologia, mikologia, mendiko bizikleta...

Eta atal honekin amaitzeko, orain arte aipatutakoekin alderatuz nahiko ezberdina den artikulu bat ere erakutsi behar dugu. Tolosan historia luzea eta presentzia nabarmena izan duen elkarte erlijioso bat.



Tolosa CF

Tolosa Futbol Kluba Tolosako kirol elkarte da. 1922an futbol kluba sortua, egun atletismo, saskibalo, eskubalo, txirrindularitza, igeriketa, pilota eta tenis sailak ditu. Berazubi da bere futbol-zelaia, 3000 ikuslerentzako toki duena.

Tolosako Jesusen Zerbitzariak

Jesusen Zerbitzariak erakunde erlijiosoa da, egoitza Tolosan duena nahiz eta egoitza nagusia Erroman dagoen. Kongregazio hau Bilbon sortu zen 1871ean eta Tolosara 1886an iritsi zen. Tolosan, gaur egun, adinekoentzako Eguneko Zentroa kudeatzen dute. Historia luzeari erreparatuta, aipagarria da Tolosaldeako industrializazioaren garaian, emakumeak paper fabriketan lanean hasi zirenean, haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen hasi zirela, European halakorik ezagutzen ez zenean.



Tolosako Jesusen Zerbitzarien armarria.



06



 Steven Lelham.

Pertsonak

Liburu honi amaiera emateko atalik luzeena geratzen zaigu, eskualdeko pertsona garrantzitsu edo esanguratsuen atala. Esan beharrik ez dago, ez direla atal honetan agertuko Tolosaldeako pertsonaia nabarmen guztiak, askoz ere orrialde gehiago beharko genituzke aipamena merezi duten izen guztiak sartu beharko bagenitu. Atal honetan topatuko duzuna, liburu osoan zehar esan dugun moduan, Tolosaldepedia proiektuaren baitan Wikipedia eta Txikipediari egindako ekarpenak dira. 2021 urtean zehar gehitutako eduki berria. Hemen dauden izen guztiak dira, baina ez daude diren izen guztiak.

Atal honen barruan leku berezia egin nahi izan diegu Tolosako Jabetze Eskolan Wikipediako ikastaroan parte hartu duten emakumeek osatutako artikuluei. Eskualdeko emakumeak, eskualdeko emakumei buruz idazten. Emaizta ederra izan da.




Arantxa Orbegozo

Arantxa Orbegozo Rezola (Tolosa, 1962), Txixi ezizenez ere ezagutzen da. Zaletasun eta ogibide ugari izan ditu: kirolaria, Espainako txirrindulari selekzioako masajista, Tolosan lehenengo emakumezko kale garbitzailea eta bidaiaria, besteak beste. Gaur egun margolaria da.



Maria Luisa Agirre

Maria Luisa Agirre Azurmendi (Tolosa, 1919 – 2013), Doktora ezizenez ezaguna. Tolosako mediku pediatria ezaguna zen, medikuntzan doktordutza egin zuen lehen emakumezko gipuzkoarra izan zen.



Yolanda Vargas Pozo

Yolanda Vargas Pozo (Tolosa, 1954), igerilaria, Espainiako txapeldun izan zen 1970ean, 100 metro bizkar proban gazte mailan. Tolosako aurreneko emakume irabazlea izan zen. Sortu berria zen Tolosa CF klubeko igeriketa sailean parte hartu zuen eta konpetizioan aritu zen, emakumeek konpetitza ia ezinezkoa zen garai batean.



Josune Gorostidi

Josune Gorostidi Elgarresta (Txarama, Leaburu, 1967), txirrindulari ohi eta herri kirolaria da. Txirrindularitza utzi ondoren, lokotx biltzaile (Euskal Herriko txapeldun geratu zen bi aldiz), sokatiralari, trontzalari (Euskal Herriko txapeldun hiru aldiz) eta segalari jardun zuen.



Izaskun Etxetxipia

Izaskun Etxetxipia Goiburu (Tolosa, 1940 – 2020), medikua izan zen, hematologian espezializatua. Dirurik ez zegoen bere etxean, gurasoak langileak ziren, eta bekekin Nafarroako unibertsitatean medikuntza ikasi zuen; ez zen ohikoa emakumezkoek Unibertsitateko ikasketak egitea. Laugarren promozio horretan 23 ikasletik zazpi izan ziren emakumezkoak.

Ladislao Zabala Salazar

Ladislao Zabala Salazar (Tolosa, 1806 – 1897) tolosar politikaria izan zen. Gipuzkoako landa-nobleziako familia bateko kidea zen, nekazaritza-errenitei lotua, errotak eta burdinolak zituen.



Jabetze Eskolako ikastaro horretatik kanpo ere asko izan dira **Wikipedian** sortutako biografia berriak: politikariak, musikariak, artistak, errepresaliatuak, kulturgileak...

Miguel Martinez de Lezea

Miguel Martinez de Lezea Laskurain (Villabona, 1893 - 1984) txistularia izan zen. 1925ean Tolosako 1. txistulari plaza oposizioz atera zuen eta bere lehen lana Tolosako Inauterietako Alboradako piezak salbatzea izan zen, partitura idatzirik ez zutenak.



Carlos Landi Sorondo

Carlos Silvestre Landi Sorondo (Tolosa, 1896 - Donostia, 1974) paisaia-egilea, kartel-egilea, grabatzailea, dekoratzailea eta ilustratzailea izan zen.

Maria Dolores Arbilla

Maria Dolores Arbilla Mendizabal (Tolosa, 1897 - 1986) maistra eta euskararen sustatzailea izan zen. Tolosako ikastolako irakasle izan zen 1921etik 1936 bitarte eta Eusko Ikaskuntzako Lehen Hezkuntzako Batzordekide ere izan zen.



Gloria Vignau de Duñabeitia

Gloria Vignau de Duñabeitia (Tolosa, 1902- 1990) piano-jotzailea izan zen. Pedro Gorostola, Conchita Supervia eta Maria Angeles Olariagarekin batera ibili zen atzerrira egindako ibilaldietan. Donostiako Musika Kulturako Elkarteko lehendakaria izan zen.



Shanti Zurutuza

Shanti Zurutuza Rezola (Ataun, 1910 - Tolosa, 1988) kirol antolatzaile eta masaje emaile bezala nabarmendu zen gizon ekintzailea izan zen. Besteak beste, Tolosa CF taldean lehendakari, zuzendaritzako kide, entrenatzaile eta masajista izan zen.



Bienvenida Agirrezabala Esnaola

Bienvenida Agirrezabala Esnaola (Tolosa, 1916 – Mutriku, Saturrarango emakumeen kartzela, 1938) gerra garaiko tolosar emakume errepresaliatua izan zen.



Maritxu Zagala

Maritxu Zagala (Tolosa, 1913- Canet de Mar, Bartzelona, 2017) Espainiako Gerra Zibilean erbesterratutako tolosar emakumea izan zen.





Matxin Labaien

Matxin Labaien Sansinenea (Tolosa, 1931 - 2021) margolaria eta idazlea izan zen, paisaietan espezializatua. Aita zuen Antonio Maria Labaien idazle, biolin jotzaile eta politikaria (Tolosako alkatea 1936an), eta ama Carmen Sansinenea piano jotzailea; eta anaia zuen Ramon Labaien politikaria.



Antxon Elozegi

Antxon Elozegi Vitoria (Tolosa 1932), kultur eta jai ekintzailea eta ekimen askoren sustatzailea. Tolosako Ekinbide Etxeko sortzaileetarikoa bat eta lehen lehendakaria.



Pello Jose Aranburu

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia (Alkiza, 1936) apaiz, idazle, kultur sustatzaile eta irakaslea. Euskararen irakaskuntzan eta bere jaioterriko historiaren dibulgazioan lan handiak egin ditu.

 Zaldi Eroa



Josu Iztueta

Josu Iztueta Azkue (Tolosa, 1957) Tolosan bizi den euskal bidaiari eta abenturazalea da. Bere lagun Angel Ortizekin, 20 lagunentzako tokia zuen "Nai-robitarra" izeneko autobusa egokitu zuten bidaiak egiteko.




Iñaki Epelde

Iñaki Epelde Mundiñano (Tolosa, 1958 - 2013) artista, euskalzale eta kultur eragilea izan zen. Beste lan askoren artean, Tolosako mural ugari margotu zituen, Plaza Berriko kioskoaren bobedan, adibidez.

José Miguel Arregi

José Miguel Arregi Aranzegi (Tolosa, 1941) gipuzkoar futbol jokalaria ohia da. Real Sociedaden aritu zen 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Aurrelari moduan aritzen zen.



Antton Telleria

Antton Telleria Lopetegi (Tolosa, 1993) kazetaria, musikaria eta umoregilea da. EITBko hainbat saiotan egin du lan, irrati zein telebistan eta umoregile moduan bakarrizketak ere egiten ditu.

Jose Luis Longaron

Jose Luis Longaron Galartza (Tolosa, 1952 - 2019) artista plastikoa izan zen. Besteak beste, Mariano Arsuagarekin batera, "Pott" aldizkariren diseinu artistikoaren ardurua hartu zuen, Bernardo Atxaga, Joxe Mari Iturralde eta Joseba Sarrionandiarekin elkarlanean.



Wikipedian bezala, ez dira gutxi izan **Txikipediara** egindako ekarpenak ere. Hemen ere denetarik: pertsonaia historiko ezagunak, eskualdeko gazte esanguratsuak, kirolariak, musikariak...

Txikipedia

Felipe Gorriti

Felipe Gorriti (Uhartea Arakil, 1839 – Tolosa, 1896), tolosako kapera-maisu aukeratu zuten eta goi-mailako organo-eskola antolatu zuen. Hainbat erlijio musika-lan hobetu zituen. Iruñeko kale batek bere izena du.



Txikipedia

Eduardo Justo Mokoroa

Eduardo Justo Mokoroa (Tolosa, 1867 – 1959), organista, zuzendaria eta musikagilea izan zen. Tolosako abesbatzako eta udal musika bandako zuzendaria izan zen, abesbatzarekin sari asko lortu zituen. Tolosako udal musika eskolak bere izena darama.



Txikipedia



Migel Irazusta Goikoetxea

Migel Irazusta Goikoetxea, (Abaltzisketa, 1925 – Igeldo, 2000), aizkolaria izan zen, "Polipaso" ezizenez ezaguna. Aizkoran 33 urterekin hasi zen. Apustu, sari eta txapelketa ugari irabazi zituen eta azken apustua 56 urterekin jokatu zuen Tolosan.



Txikipedia



Orixe

Nikolas Ormaetxea Pellejero (Orexa, 1888 – Añorga, 1961), Orixe ezizenaz ezagunagoa, euskal idazlea izan zen. Bigarren Pizkundeko idazle nabarmena izan zen, gerraurreko belaunaldiko kidea, Lauaxeta, Lizardi eta Loramendirekin batera.



Txikipedia

Feliciano Beobide

Feliciano Beobide (Tolosa, 1888 – Lesaka, 1956), Eduardo Mokoroarekin pianoa eta biolina ikasi zituen. 1922an Tolosako Bandaren zuzendaria izendatu zuten, eta Udal Musika Akademiako zuzendaria ere izan zen.



Txikipedia

Ignacio Mokoroa

Ignacio Mokoroa (Tolosa, 1902 – 1979) organista eta musikagilea izan zen. Piano, organo eta abesbatzarako obrak idatzi zituen. Adibidez: Herri meza, Miserere...



Txikipedia

Kaxiano

Kaxiano Ibarguren Bolinaga (Antzuola, 1932 – Lizartza, 2002) euskal soinu-jolea izan zen. Lizartzako itsua deitzen zioten, gaztetan izandako istripu baten ondorioz itsu geratu zelako. Gerora ikasi zuen eskusoinua jotzen eta bertatik etorri zitzaion musikariaren fama.



Txikipedia

Iñaki Malbadi

Iñaki Malbadi (Albiztur, 1953), soinu jotzailea eta trikitilaria da. Folk talde askotan aritu da eta bere herriaren izenarekin omentutako "Albiztur" fandangoa konposatzeagatik da ezaguna.



**Jesus Altuna**

Jesus Altuna Etxabe (Berastegi, 1932), arkeologoa, paleoantropologoa eta arkeozoologoa. Aranzadi zientzia elkarteko lehendakaria izan zen eta Muni-be aldizkariaren zuzendaria izan zen.

**Pello Zabala**

Pello Zabala Bengoetxea (Amezketza, 1943 - Arantzazuko santutegia, Oñati, 2022) fraide frantziskotarra, euskal idazlea, irratiko aurkezlea, musikazalea eta meteorologoa izan zen. Arantzazuko santutegian bizi zen, Oñatin.

**Anjel Arrospide**

Anjel Arrospide (Leaburu, 1956), aizkolaria da. Bere lehenengo saioa aizkolaria bezala Leaburuko festetan izan zen. Hainbat sari irabazi ditu, besteak beste Euskadiko Txapelketa irabazi zuen 1990 eta 1995 artean.

Periko Alonso


Periko Alonso (Tolosa, 1953), futbolari ohi eta entrenatzailea. Xabi Alonso eta Mikel Alonso jokalarien aita da. 1977tik 1982ra jokatu zuen Errealean. Ondoren, Barcelonan eta Espainiako futbol selekzioarekin ere bai. 1988an amaitu zuen bere ibilbidea jokalaria moduan.

**Anjel Mari Peñagarikano**

Anjel Mari Peñagarikano (Albiztur, 1957), bertsolaria da. Gaur egun Anoetan bizi da. 1980ko urtearen hasieran hasi zuen bertsolari ibilbidea, 1991n Gipuzkoako Bertsolari txapelketa irabazi zuen. 2010etik ez du txapelketetan parte hartzen.

**Ainhoa Arteta**

Ainhoa Arteta Ibarrolaburu (Tolosa, 1964) sopranoa da. Munduko aretorik ezagunenetan abestu izan du, eta hainbat diskotan parte hartu du. Halaber, sari garrantzitsuak jaso ditu, adibidez: New Yorkeko Metropolitan Opera National Council Auditions lehiaketakoa eta Parisko Concours International de Voix d'Opera Plácido Domingo lehiaketakoa.

**David Azurza**

David Azurza Aranburu (Tolosa, 1968), abeslaria eta musikagilea da. Capilla Peñaflores (antzinako musikan espezializatuak) eta KEA (musika garaikidea) taldeetako kide da. Abesbatza, talde instrumental eta orkestrekin kolaborazioak egin ditu, Euskal Herrian eta atzerrian.


**Ramon Olasagasti**

Ramon Olasagasti (Berrobi, 1972) kazetari eta idazlea da. 1993tik 2006ra bitartean Euskaldunon Egunkarian eta Berrian jardun zuen lanean. Hiru sari irabazi ditu denora: bi aldiz Xabier Lizardi saria eta behin Tene Mujika saria.


R. Calvo

**Iker Galartza**

Iker Galartza (Amezketza, 1977), antzezlea da. Telebistan egindako lanengatik egin zen ezaguna. Antzerkia ere egin du, Poxpolo eta Mokolo paila-zoekin adibidez. 2001an Gure Zirkua martxan jarri zuen beste batzuekin batera.

**Xabier Zeberio**

Xabier Zeberio Etxetxipia (Tolosa, 1978) biolin-jotzailea eta musikagilea da. Alos Quartet taldearen buru da 1999. urteaz geroztik; eta Oskorriko kide izan zen, 1997. urtetik talde hori desegin zen arte.

**Joseba Usabiaga**

Joseba Usabiaga Amondarain (Tolosa, 1981), aktorea da. EITB1-en Goenkale teleailean Tximista pertsonaia egiteagatik egin zen ezagun. Gaur egun Gure Zirkuan aritzen da Iker Galartzarekin batera.

**Amaia Arranz Otaegui**

Amaia Arranz Otaegui (Tolosa, 1987), arkeobotanikaria da. Kopenhageko Unibertsitatean ikerketa lanean ari zela, ogiaren jatorria uste zena baino zaharragoa dela adierazi zuten aztarnak aurkitu zituen bere taldearekin Jordaniako Basamortu Beltzean.

**Ekaitz Saralegi**


Ekaitz Saralegi Mujika, pilota arloan Saralegi ezizenaz ezaguna (Amezketza, 1979). Esku huskako pilotari profesional ohia da. 2001ean, Beotibarren debutatu zuen. Aurrelari aritzen zen. 2015ean bere herrikide Jokin Altunaren aurka jaioterrian erretiratze partida jokatu zuen, Larrunarri frontoian.

**Mikel Alonso**

Mikel Alonso (Tolosa, 1980), futbolari ohia da. Periko Alonso, futbolari ohia bere aita da; Xabi Alonso futbolari ohia bere anaia da. Beste anai bat du, Jon, futbol epailea. Real Union izan zen bere azken taldea.

**Garazi Esnaola**

Garazi Esnaola Balerdi (Lizartza, 1992) piano jotzailea da. Izaro musikariarekin kolaboratu izan du eta baita Olatz Salvador, Ainhoa Larrañaga, Ska-keitan eta gehiagorekin ere.

**Goar Lopetegi**

Goar Lopetegi Nieto (Ibarra, 1994), mendi lasterkaria eta lanbidez fisioterapeuta. Goierriko Bi Handietan bigarren postua lortu zuen 2019an eta Hiru Handietan laugarren postua 2018an.



**Xabier Artola**

Xabier Artola (Irura, 1996) euskal dantzaria da. Tolosako Udaberri dantza taldean aritzen da. Euskal Herriko Dantza Txapelketako irabazle izan da Idoia Besadarekin batera 2016, 2017 eta 2018an.

**Eukene Larrarte**

Eukene Larrarte Arteaga (Tolosa, 1998) txirrindulari profesionala da. Pista eta karretera modalitateak uztartzen ditu. Espainiako txapelketetan hainbat domina eta Europako txapelketan postu oso onak lortu ditu.

**Nerea Eizagirre**

Nerea Eizagirre Lasa (Tolosa, 2000), Real Sociedad futbol taldeko eta Espainiako selekzioko jokalaria da. 16 urterekin hasi zen Errealeko lehen taldearekin jokatzeko eta taldearen ikurretako bat da gaur egun.

Eskerrik asko!

Eskerrik asko liburu honetan modu batean edo bestean parte hartu duzuen guztiei:

Lehen aldiz **Wikipedian** idaztera ausartu eta uste baino errazagoa dela ikusi duzueni.

Beti bezala, oraingoan ere hor egon zareten wikilari nekaezinei.

“Zure artikulua idatziko dut **Wikipedian**” esaterakoan ilusioz edozertan laguntzeko prest izan zaretenei.

Etxean gordetako argazkiak aske utzi eta denon eskura jartzea erabaki duzueni.

Ikasgeletako egoera arraro honen erdian atea parez pare ireki eta **Txikipediako** proiektua besozabal hartu duzuen irakasle eta ikasleei.

Eskualdeko emakume esanguratsuen ahotsak bildu eta plazaratu dituzuen emakumeei.

Akats txiki bat ikusi eta zuzentzera animatu zaretenei.

Eta, noski, zuri irakurle, irakurtzen ez den liburu batek ez duelako ezertarako balio.

Eskerrik asko, beraz, guzti-guztiei.

Auzolanean eraikitako jakintza askoz ere aberatsagoa delako, jarrai dezagun Tolosaldepedia osatzen, jarrai dezagun Wikipedia eta Txikipedia zabaltzen.

